

- ▶ 2014ko Jardueren Memoria
- ▶ Memoria de Actividades 2014

sgiker

Ikerkuntzarako
Zerbitzu Orokorrak
Servicios Generales
de Investigación

IKERKETA ARLOKO
ERREKTOREORDETZA
VICERRECTORADO DE
INVESTIGACIÓN

emari ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

NAZIOARTEKO
BIKAINASUN
CAMPUSA
CAMPUS DE
EXCELENCIA
INTERNACIONAL

Ikerkuntzarako Zerbitzu Orokorrak – SGiker

Ikerketaren Arloko Errektoreordetza

Errektoretza eraikina
Bizkaiko Campusa
Sarriena auzoa, zk.g.
Leioa, 48940 – Bizkaia
Tel.: 94 601 50 50
Webgunea: www.ehu.es/sgiker

ESKERRAK:

Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioa. EGEF eta Europako Gizarte Funtza laguntza programak.

Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuordetza. Zientzia Politikarako Zuzendaritza.



AURKIBIDEA

	<i>Orrialdea</i>
1. Sarrera	4
2. Egitura antolatzailea	5
3. 2014an lortutako emaitzak	6
4. SGiker kopurutan	12
4.1. Erabiltzaileak eta ikerketa taldeak	13
4.2. Egindako zerbitzuak	16
4.3. Adierazle zientifikoak	16
4.3.1. SGiker zerbitzuak aipatzen dituzten argitalpen zientifikoak	17
4.3.2. UPV/EHUn SGiker zerbitzuen laguntzarekin egindako tesiak	19
4.3.3. Ikerketa proiektuak	20
4.3.4. SGiker zerbitzuak biltzar, foro eta mintegietan	22
4.4. SGikerren prestakuntza eskaintza	23
4.5. Giza baliabideak eta baliabide teknologikoak	26
4.5.1. Langileak	26
4.5.2. Langileen prestakuntza	27
4.5.3. Ekipamendu zientifiko eta teknologikoa	28
4.6. SGiker zerbitzuak hedabideetan	29
4.7. Erabiltzaileen gogobetetasuna	30
4.7.1. Gogobetetasun inkestaren emaitzak	30
4.7.2. Prestakuntzarekiko gogobetetasunaren segimendua	34
4.8. Emaitza ekonomikoak	36
5. 2015rako hobekuntza jarduerak	38
I. eranskina. Baliabide zientifiko eta teknologikoak	40
II. eranskina. 2014an emandako ikastaroak	52
III. eranskina. Prestakuntzaren alderdi positiboak eta hori hobetzeko iradokizunak	54
IV. eranskina. 2015. Urtearen tarifak	55
V. eranskina. Irudien aurkibidea	100
VI. eranskina. Taulen aurkibidea	100

1.- SARRERA

Behin Euskal Herriko Unibertsitateko Ikerkuntzarako Zerbitzu Orokorren-SGIker, 2010-2014ko Plan Estrategikoa amaiturik eta era berean, UPV/EHU-ko 2010-2014ko Ikerkuntza Planarekin batera lortutako emaitzen inguruan, hausnarketa egiteko garaia da, hauek lortzera bultzatu gaituzten zergaitiak eta elementuak aztertuz. Hausnarketa hau, 2014ko SGIker-en Jardueren Memoriaren bitartez egiten da. Memoria honetan, lorpenak jarduerak eta jasotako datu eta indikatzaile garrantzitsuenak jasotzen dira.

Ikuspegi zientifiko batetik, ezagutzaren sorpenean eta transmisioan lortutako emaitza onak nabarmendu daitezke. Hauek, planteamendu estrategikoa duten indikatzaile intangibleen bitartez adierazten dira, hala nola, 2014an SGIker-ek bermatuta defendatu diren tesi kopurua, Q1 kuartilean indexatuta dauden eta izaera zientifikoa duten publikazio kopuru altua, edota ikerkuntzari eman zaion bermea UPV/EHU-tik kanpo, entidade pribatuen zerbitzu eskaeren hazkuntza.

Jasaten ari garen krisi garai honetan, gai izan gara baliabide zientifiko-teknikoak eta UPV/EHU-ri atzekitutako giza baliabideak mantentzeko eta unibertsitate erkidegoan eta honen inguruan emaitza tangible eta intangibleak sortzeko, gaitasuna izan dugu. Horretaz gain, hainbat teknologia eta ekipamendu berritzeko aukera izan dugu.

Kudeaketaren arloan, AENOR-ek ematen duen ISO 9001 zertifikazioari, Zerbitzu berriak gehitu zaizkio eta era berean ISO 17025ean ENAC-en bitartez lortutako akreditazioa finkatu da ingurugiro sailean garatu diren 6 entsegu teknikentzat. Kudeaketaren hobekuntzaren bidean, zertifikazio eta akreditazio kopurua handitzeko jardueran jarraitzen dugu.

Azkenik, Zuzendaritzak, emaitza hauek lortzera bultzatu gaituzten, SGIker-ei atzekitutako pertsonen balioa eta euren ahaleginak, ardura eta gogoak aitortzen ditu eta lan egiten eta hobetzen jarraitzera animatzen ditu.

3.- 2013an LORTUTAKO EMAITZAK

L1. SGIker UNITATEEN GAITASUN ZIENTIFIKO ETA TEKNIKOA INDARTZEA

L1.1. SGIker zerbitzuek Zientzia Parkean duten tokia: Zientzia eta Teknologia Plataformak sortzea

- Zuzendariaren eta Koordinazio eta Planifikazio teknikariaren bilerak Kontratazio eta Obra Zerbitzuarekin eta enpresa adjudikaziodunekin, eraikineko obren segimendua egiteko. Parke Zientifikoko I+G+B jardueren plangintza.
- Lanen segimendua eta lanen amaitzea Bizkaiako Animaliategiaren handipenean, Leioan.

L1.2. Unitateen sustatzea

- Zerbitzuen eskaintzan eskuragarri dauden Teknologia eta Zerbitzu berriein zerikusia duten prestakuntza kurtsoen garapena: “Metalen analisisia uretan: balidazioa eta neurketen kalitate kontrolak”.
- Formazio ekintzen bidez prestatutako pertsonalaren portzentaia gehitzea, %83aren gainean.
- Berrien mantentzea SGIker-en web orrialdearen bidez.

L1.3. Zerbitzuen sortzea eta zabaltzea

- Azpiegitura zientifiko-teknologikoa berritzea:
 - Kalkulo Zientifiko Zerbitzuan Arina Kluster-aren handipena (Ikerketari Aplikatutako Informatika) Xenon-ezko 600 core berrien bitartez.
 - Sekuentziazio eta Genotipoen analisirako, Sekuentziazio plataforma berri baten erosketa (NGS). Sekuentziadore hau, sonikadore batekin osatzen da.
 - Bizkaiako Analisi Zerbitzu Zentralean, MALDI moduko imajinen analisirako, sprayadore automatiko bat gehitu da.
 - Mikroskopia Elektronikoa eta Materialeen Mikroanalisien Zerbitzuan, (Plasma Cleaner) plasma garbitzaile baten erosketa, TITAN ekipoa osatzeko.
 - Geokronologia eta Geokimika Isotopikoa Zerbitzuan dagoen ekipamendua osatzeko, Perkin markako masa espektrofotometro (ICP-MS) berri baten erosketa.

- Fitotroi eta Negutegi Zerbitzuan, klimatizazioa kudeatzeko, kontrolatzeko eta erregulatzeko sistema baten instalazioa. Honi esker, modu azkar baten eta in situ, landareen hazkuntzan eragietn duten parametro ezberdinak ezagutu ahal izango dira.

L2. ERAGINKORTASUN OPERATIBOA ETA ADMINISTRAZIO KUDEAKETA HOBETZEA

L2.1. Lantaldea egonkortzea, Lanpostuen Zerrendaren bitartez edo hainbat urterako finantziatorako kanpo deialdien bitartez

- Unitateen Pertsonal teknikoaren finkapena kontratu guztien berritzearekin.

L2.2. SGIker unitate guztietan kalitate prozedurak araupetzea

- RAMAN-LASPEA Unitatearen Zerbitzu Karta aprobatzear eta publikatzear dago eta urte bateko epean, kanpo ebaluaketa bat pasatuko da UNE 93200 Zerbitzu Karten araudiarekin bat datorren zertifikatzeko.
- Kalitatearen kultura bultzatzea SGIker zerbitzuetako langile teknikoen prestakuntzaren bidez:
 - Software askean oinarritutako EHUDOKU Dokumentazio Gestorearen erabilpena.
 - Biosegurtasunaren inguruko jardunaldi teknikoa.
 - Zerbitzu salmenten inguruko jardunaldia.
- Prozesu eta prozedura arautuen mapan unitate eta lanerako teknika berriak integratzea.

L2.3. Sareko tresnak diseinatzea eta erabiltzea, zerbitzuen kudeaketa orokorra egiteko: eskaerak, analisiak, emaitzak, fakturazioa...

- Bukatutzat eman da SGIker-en partehartzea Alfresco (EHUDOKU) gestore dokumentalaren garapenerako aurre frogak.
- Unitateen eguneroko kudeaketan teknologia berriak erabiltzea eskaerak egiteko, Zerbitzuaren planifikazioa agerikoa eta gardena izateko, webgunearen bidez eskaeren egoera kontsultatzeko, etab.
- Gestio prozesuetan ERP-en (Enterprise Resource Planning) aplikagarritasuna eta irisgarritasuna berrikustea eta aztertzea. Kudeaketaren beharizanak betetzen dituen ERP harraminta baten inplantaziorako planifikazioa.

L2.4. SGIker unitate bakoitzean bideragarritasun analisia egitea

- Laser Tresnen Zerbitzuan CESIC-en bitartez lan ezberdinak eraman dira aurrera CERN-arentzako (Ikerkuntza Nuklearrerako Kontseilu Europearra), europear proiektu baten inguruan. CESIC-en harremanak SGIker-ekin erabiltzaile mailakoa da, baina CERN-en kasuan harremana partner mailakoa izango da.
- Laser Tresnen Zerbitzuan CESIC-en bitartez lan ezberdinak eraman dira aurrera CERN-arentzako (Ikerkuntza Nuklearrerako Kontseilu Europearra), europear proiektu baten inguruan. CESIC-en harremanak SGIker-ekin erabiltzaile mailakoa da, baina CERN-en kasuan harremana partner mailakoa izango da.
- Geokronologia eta Geokimika Isotopikoa Zerbitzuan, Tokioko, National Institute of Polar Research-eko (NIPR) tekniko baten estantzia, Training eta Instructions on procesing and Analysis jardueraren barruan, prestakuntza espezifikoa jasotzeko laginenn analisian zerbitzuan jasoko bait dira.
- Fundación Global Democracia y Desarrollo-ren (Funglode) delegazio baten bisita Ikerkuntzarako Zerbitzu Orokorretara (SGIKer), Leonel Fernandez, Dominikar Errepublikako expresidentea , presidentea buru zutela.

L3. SGIker ZERBITZUEN ARTEKO KOHESIOA HANDITZEA

L3.1. SGIker zerbitzuen arteko koordinazioa eta lankidetzak hobetzea

- Zerbitzu ezberdinen jarduerak koordinatzeko bilera periodikoak eramatan dira aurrera.

L3.2. Proiektu bateratuak egitea eta teknika analitikoak txertatzea

- Zerbitzuaren erabiltzaileei eta euren informazio zientifikoa imagina baten analisiarekin erlazionatuta duten unitateei zuzendutako urteko VI. Mikrofotografia Lehiaketa ospatzea.
- 407 proiekturi konpetitibori laguntza eskaeintzea. Hauetatik, gutxi gora behera 350 proiektu, SGIker-en Unitateren laguntzarekin eraman dira aurrera.
- Hitzarmenak eta lankidetzak sinatzea. Hona hemen aipagarrienak:
 - Krispiñanako ur araztegia: hondakin uren analisia.
 - Ertzaintza: RAMAN teknikaren bidez laginak aztertzeke eta Mikroskopia Elektronikoko tekniken bidez tiro hondakinak aztertzeke ezarritako akordioa mantentzen da.

- Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Saila: Legezkoak ez diren substantzia mendekotasun-sortzaileen proba laginen azterketa kimikoa egitea EMN bidez.
- “Aplicaciones de técnicas biotecnológicas y de microencapsulación para la funcionalización de agrotexiles” proiektuarentzako laguntza teknikoak. AITEX, “Asociación de la Investigación de la industria Textil” elkartearekin batera sinatuta.
- DRX-aren bitartez analisiak egitea. Hernialde Zizurkil UTE-rekin sinatuta.

L3.3. Prestakuntza jarduera bateratuak diseinatzea

- 2014. urtean zehar, SGIker-en 14 Unitatetako pertsonak, 27 partizipazio izan dituzte, 15 master berrmatuz. Hauetatik bi, unibertsitateen artekoak dira eta bat, UPV/EHU –ko titulu propioa da.

L3.4. SGIker unitateetako langile guztiak komunikazio arin eta eraginkorra izateko tresnak sortzea

- SGIkeren zerbitzuetara egiten diren eskaera telematiko ezberdinak bat egiteko, proiektu bat garatzen ari da, eskaera estandar bat izateko Ikerkuntzarako Zerbitzu Orokor guztientzako. Honek, eskaera guztien jarraipena erraztuko du.

L4. SGIker ZERBITZUEN IKUSGAITASUNA ETA HEDAPENA HANDITZEA, EAEn ETA ESTATUAN

L4.1. Zientzia ekarpenak eginda biltzarretan parte hartzea, azoketan txokoa izatea eta barneko eta kanpoko erabiltzaileentzako workshopak gauzatzea

- 2014ko ekitaldian, aholkulari zientifikoak eta langile teknikoak modu aktiboan parte hartu dute, jardunaldi, mintegi eta tailerretan, komunikazio zientifikoak eramanda.
- G9-ko Unibertsitateen Ikerkuntzarako Zerbitzu Orokor ezberdinekin bildu, elkartu eta bisitatu. Topaketa hauen helburua alde batetik, kudeaketa eta lan metodologia berriak ikastea izan da eta bestetik, Unitate eta Zerbitzu sare bat mantetzea Unibertsitate hauen ikertzaileentzako.

L4.2. Hedapen jarduerak maila espezifikoan lantzea, zerbitzuei, prestakuntzari... begira

- Komunikazio materiale berrien diseinua bertsio digitalean zein inprimakietan.
- SGIker-en komunikazio guztiak web orrialdearen bitartez, iragarkien tablen bitartez, emailen bitartez...hiru hizkuntzatan egiten dira (euskara, gaztelera eta ingelesa).

- SGIker-en web orrialdearen bitartez, bere jarduerekin erlazionatuta dauden 27 albizte zabaldu dira eta era berean 15 ebentu zabaldu dira. Gure portalean publikatutako albistek eta ebentuek, Facebook eta Twitter-en bidez zabaltzen dira baita.
- Lanbide Heziketako Ikastetxeekiko akordioa berrestea, Lanbide Heziketako ikasleak UPV/EHUn sartzeko, nahitaezko praktikak egin ditzaten.
- Aurrera eraman dira Prestakuntza Profesionaleko zein bigarren hezkuntzako Zentruetara programatutako dibugazio bisitak, konkretuki, Prestakuntza Profesionaleko Tartanga Institutoarekin (diagnostiko klinikoa), eta Prestakuntza Profesionaleko Elorrieta Erreka Mari (kimika) zentruetako irakaslegoarekin harremanetan egon gara, "Formación en Centros de Trabajo" (FCT) programaren barruan dauden ikasleek, erabiliko dituzten instalazioak ezagutu ditzaten.
- 18 prestakuntza ikastaro eman dira; horietatik 2 eskari bidez diseinatu eta eman dira UPV/EHUko ikertzaileentzat eta kanpoko ikerketa zentroentzat.
- 154 ikertzaile, irakasle eta administrazio eta zerbitzuetako langilek parte hartu dute SGIker zerbitzuek eskainitako prestakuntza jardueretan.
- SGIker-ek, instituzio mailako informazioa ezagutzeko, bi aplikazio dauzka mobilentzako diseinatuak:
 - SGIkerren informazio orokorra 1.0: 69 deskarga.
 - SGIker-en kurtsoen katalogoa: 13 deskarga.

L4.3. SGIker zerbitzuek euskarazko, ingelesezko eta gaztelaniazko zientzia ekoizpenean ematen duten laguntza espresuki onartzeko modua araupetzea

- Hobetu eta handiagotu egin da azken urte hauetan, SGIker aipatzen duten Q1 eta Q2 kuartiletan publikatu diren artikuluen zientifikoaren kopurua.
- Teknikariekiko koordinatzea zerbitzu bakoitzaren ekoizpen zientifikoa ebaluatzeko.
- Prestakuntza ikastaroak ematea ikertzaileei eta ikertzen hasteko ikerketa talde gazte berriei laguntzeko orientazio tailerren modalitatean Zientziometria Unitatearen eskutik.
- SGIker zerbitzuen laguntzarekin, argitalpen zientifikoetako Thomson Reuters-en ID Research erregistroa mantendu eta eguneratu.

L5. KALITATE ARAU BERRIAK SGIKER ZERBITZUETAN: ISO 9001, ISO 17025, EFQM EREDUA ...

L5.1. Bizkaiko Analisisirako Zerbitzu Zentralean azterketa teknikak ISO 17025 arauaren arabera ziurtatzea

- ENAC-en akreditazioa berriztatu da Ingurumen azterketa arloko 6 entseguentzako Bizkaiko Analisi Zerbitzu Zentralean.
- ISO 17025 arauaren inplantazioa ezartzen da Sekuentziazio eta Genotipatu Unitatean, akreditazioaren nondik norakoa zabaltzeko asmoarekin.
- Interkonparazio ariketetan partehartzeko plangintza bat garatu da, tekniken efizientzia hobetzeko asmoarekin, eta ahalik eta analito gehien eskeini ahal izateko asmoarekin.

L5.2. Unitate berrietan kalitatearen kudeaketa sistemak ziurtatzea

- ISO 9001 arauaren arabeko kalitate ziurtagiriaren berritzea lortu da:
 - Arabako Analisisirako Zerbitzu Zentrala.
 - Bizkaiko Analisisirako Zerbitzu Zentrala.
 - Bizkaiko Erresonantzia Magnetiko Nuklearra.
 - Gipuzkoako Erresonantzia Magnetiko Nuklearra.
 - Gipuzkoako Polimeroen Karakterizazio Zerbitzua.
 - Multiespektroskopia Akoplatuen Laborategi Berezia (Raman-Maklab).
 - Eskainitako etengabeko prestakuntza ikastaroen kudeaketa eta diseinua.
- Data berdinean unitate berry bat gehitu dira SGIkerren ISO 9001 ziurtagiriaren nondik norakora:
 - X Izprien Bidezko Espektroskopia Fotoelektronikoa (XPS)

L5.3. Erabateko kalitatearen arloan aintzatespenak lortzea (EFQM eredua)

- 2014. urtearen amaieran, Multiespektroskopia Akoplatuen Laborategi Berezian (Raman-MAKLAB), Zerbitzu Karta ezarri da. Urte bat igarota, dagozkion datuak jasoko dira ebaluatua izan dadin.


4.- SGIKER KOPURUTAN

Lortutako datu eta mugarriak SGIker adierazle multzo baten parte dira. Hausnarketa estrategiko honen ekuatorea gainditu ondoren, zehazturiko aginte mahaiak egindako inbertsioen errentagarritasun zientifiko-teknologikoari eta efizientzia eta efikazia joerari loturiko informazio esanguratsua aurkezten da ondorengo ataletan.


- 4.1. Erabiltzaileak eta ikerketa taldeak
- 4.2. Egindako zerbitzuak
- 4.3. Adierazle zientifikoak
- 4.4. SGIkerren prestakuntza eskaintza
- 4.5. Giza baliabideak eta baliabide teknologikoak
- 4.6. Ikerkuntzarako Zerbitzu Orokorrak hedabideetan
- 4.7. Erabiltzaileen gogobetetasuna
- 4.8. Emaidza ekonomikoak

4.1. ERABILTZAILEAK ETA IKERKETA TALDEAK

Erakundeetako zein barne ikertzaileei arreta jarritz, adierazi behar dugu SGiker Unitateek eskainitako zerbitzuak erabili dituzten UPV/EHUko ikertzaile nagusien kopurua handitu dela. 2. irudian ikus daitekeen bezala, azken urtean 280 ikertzaile nagusiren kopuruaraino heldu da. Horrez gain, 2014ko erabiltzaileen zerrenda jaso da, generoaren arabera bereizita (3. irudia).



2. irudia. SGiker unitateen barneko erabiltzaileen kopurua 2010-2014 aldian.



3. irudia. 2014ko INak generoaren arabera.

Kanpo erabiltzaileei dagokienenez, 1.taulan, erabiltzaile kopurua, prestatutako zerbitzuak eta euren kategorizazioa, partikularren artean, erakunde publikoen zein pribatuen artean... azaltzen dira.

ERAKUNDE PUBLIKO ETA PRIBATUAK (BAI IRABAZI ASMOA DUTENEI BAI IRABAZI ASMORIK GABEKOEI)	ERAKUNDEAK	ZERBITZUAK
Materialak eta Azalera	80	227
Berme Teknologikoa	32	133
Biomedikuntza eta Bioteknologia	32	94
Zerbitzu Komunak	3	14
Ingurumena	1	1
Guztira	125	469
ERABILTZAILE PRIBATUAK	ERAKUNDEAK	ZERBITZUAK
Pertsonak eman dute izena ikastaroetan	34	41
Analisiak egiteko beste zerbitzuak	10	12
Guztira	44	53

1.taula. Erabiltzaileak eta prestatutako zerbitzuak.

Bestalde, 2. Taulan, kanpo erakundeen jatorri geografikoa azaltzen da.

JATORRIAREN ARABERA	ERAKUNDEAK	UNIBERTSITATEAK
EAEkoak eta Espainiako gainerako autonomia erkidegoetakoak	104	19
Portugal	3	2
Italia	3	1
Frantzia	1	0
Errezuma Batua	2	2
Holanda	2	1
Australia	2	1
Belgika	1	1
Estatu Batuak	1	1
Errumania	1	1
Dinamarka	1	1
Estonia	1	1
Txile	1	0
Irlanda	1	0
Kanada	1	0


2.taula. Kanpo erabiltzaileen jatorria, azalduz Unibertsitateak zenbat diren.

Azkenik, SGiker erabiltzen duten kanpo erakundeen tipologia azaltzen da.

ERAKUNDEAK (IRABAZI ASMOA DUTENAK ETA IRABAZI ASMORIK GABEKOAK)	ERAKUNDEAK
Erakunde publikoak	53
Erakunde pribatuak	72
ERAKUNDE MOTAREN ARABERA	ERAKUNDEAK
Fundazioak	23
Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarearen erakundeak	19
Ikerketa zentro publikoak	3
Unibertsitateak	31
Sozietate anonimoak	21
Sozietate mugatuak	24
Kooperatibak	4
Administrazio publikoak	5
Aldi baterako enpresa elkarteak , ABEE	3

3. taula: Kanpo erakunde erabiltzaileen tipología.


2014an, 522 zerbitzu eskaera jaso ditugu, 169 kanpoko erabiltzaileen eskutik; 2013ean, 154 erabiltzailek egin zituzten eskaerak (4. irudia). Kanpoko erabiltzaile motari dagokionez, nabarmentzekoa da 125 enpresak izan direla (2013ean, 109 izan zirela) eta 44 pertsona fisikoak.



4. irudia. SGiker unitateen kanpoko erabiltzaileen kopurua 2010-2014 aldian.

4.2. EGINDAKO ZERBITZUAK

2014an guztira 2.096 zerbitzu egin zaizkie barneko erabiltzaileei eta 522 kanpokoei. 2013eko datuekin alderatuta, egindako zerbitzuetan % 2,59ko igoera egon da. 5. irudian, 2013an egindako zerbitzuak eta horiek 2010tik izan duten bilakaera ikus daitezke.



5. irudia. SGIker zerbitzuek 2010tik emandako zerbitzu kopuruaren bilakaera.

Bada beste datu interesgarri bat ere: 2004-2014 aldian SGIker zerbitzuek guztira 18.247 zerbitzu egin dizkiete.

4.3. ADIERAZLE ZIENTIFIKOAK

SGIker zerbitzuek funtsezko laguntza ematen diote Euskal Herriko erakunde akademiko nagusian bertan nahiz erakundetik kanpo gauzatzen den ikerketa lanari. Horrela, SGIker unitate eta zerbitzuetako aholkulari eta teknikarien partaidetza izan duten argitalpen zientifikoek, tesiek, ikerketa proiektuek, biltzarrek, foroek eta mintegiek SGIker zerbitzuek ekitaldi bakoitzean egin duten lana neurtzeko adierazle multzoa osatzen dute.

Hona hemen halako datuak biltzeko erabilitako informazio iturriak:

- Web of Science (Thomson Reuters).
- Scopus (Elsevier).
- Zerbitzu bakoitzeko memoria zientifikoak.
- Ikertu online.
- UPV/EHUren webgune ofiziala.

4.3.1. SGiker ZERBITZUAK AIPATZEN DITUZTEN ARGITALPEN ZIENTIFIKOAK

Nabarmentzekoa da azken bost urteetan SGiker zerbitzuei esker eginiko argitalpenen kopuruan izandako hazkunde handia; 2010-2014 aldiko ekoizpen zientifikoa %10,6 hazi da 2009-2013rekin alderatuta.

Publikazioen kalitateari dagokionez, azpimarratu behar da 2014. urtean zehar, haunditu egin dela inpaktu altuko aldiskarietan publikatutako lehenengo eta bigarrenko kuartileko artikuloen portzentaia (4. Taula).


	Q1	Q2	Q1+Q2
2013	66,4	23,9	90,3
2014	69,5	25,0	94,5

4. Taula. Kuartilen araberako publikazioen portzentaia.

Jarduera hau oso garrantzitsua da, izan ere, langileen, azpiegituren eta beste baliabide zientifiko batzuen deialdi publikoetan lehiatzen jarraitu ahal izateko curriculum bat sortzea du helburu.

Thomson Reuters-en Web of Science-ko (WOS), Elsevier-en Scopus-eko, Google Scholar-eko eta zerbitzu bakoitzaren memoria zientifikoetako ekoizpen zientifikoari buruzko gure datu basetik ateratako informazioaren arabera, 2004az geroztik, SGiker zerbitzuek beren ekarpena egin dute 1.831 artikulu zientifikotan.

Jarraian, 6. irudian, azken urteetan SGiker zerbitzuen ekarpena izan duten argitalpen zientifikoek kopurua agertzen da.



6. irudia. SGiker zerbitzuen ekarpena izan duten argitalpenak 2010-2014 aldian.

* 2014. urteari dagokion publikazio kopurua behin behinekoa da, data basetan, erregistro berriak, etengabe sartzen dira eta (2015eko akainean eguneratua).


2011. urtearen amaieran, SGiker zerbitzuak beren Researcher ID profila lantzen aritu dira. Webgune hau Thomson Reutersen Web of Science kudeatzen duen enpresak jarri zuen martxan eta bere

helburua ikertzaile baten edo ikertzaile talde baten ekoizpen zientifiko osoa eta bere adierazle bibliometriko nagusiak batera biltzea da.

Webgunea (<http://www.researcherid.com/rid/A-5759-2012>) sareko erabiltzaile orok kontsulta dezake eta, horren bidez, UPV/EHUko ikertzaileek SGiker zerbitzu eta unitateen laguntzarekin egindako argitalpenak eta jasotako aipamenak eta horien batezbestekoa, h indizea eta artikuluen inguruko aipamenen banaketa geografikoa ikus daitezke; adierazle horiek guztiak WOSen jasotako artikuluetatik lortzen dira.

Researcher IDren azken eguneratzearen arabera, SGiker zerbitzuek guztira 1.831 argitalpen dituzte 2004-2015 aldian; horietatik 1.579 inpaktu eragina duten aldizkarietan argitaratutako artikulua dira, *Journal Citation Reports*-en (JCR) jasoak. 1.579 argitalpen hauek 16.758 aipu ekarri dituzte; batez beste 10,61 aipu artikuluko eta 46eko h inpaktu faktorea. Adierazle horiek hazkunde handia izan dute 2013n jasotako datuekin alderatuta; 1.270 WOS argitalpen izan ziren, eta horiek 12.052 aipu ekarri zituzten, hau da, 9,49 aipu *paper* bakoitzeko eta 42eko h indizea.

7. irudian agertzen da aipaturiko adierazle bibliometrikoen adibide bat, SGiker zerbitzuen babesa duten artikuluen kopurua azaltzen duena, arlo tematikoen arabera banatuta.



7. irudia. SGiker zerbitzuen laguntzarekin egindako artikuluen banaketa arlo tematikoa.

Honen bidez, gainera, azken belaunaldiko azpiegiturarekin lan egiten duten eta goi mailako prestakuntza duten langileen ardurapeko zerbitzu batzuen laguntzarekin sortutako kalitateko emaitzen ikuspegi garden eta osoa eskaintzen zaie unibertsitateetako kideei.

Hona hemen SGiker zerbitzuen Researcher IDrako esteka zuzena:

http://www.ehu.es/SGIker/eu/produccion_cientifica/.


4.3.2. UPV/EHUn SGiker ZERBITZUEN LAGUNTZAREKIN EGINDAKO TESIAK

Ekipoak eta teknikariak finantzatzeko deialdi publikoetan ezarritako adierazle eta kalitate irizpideei jarraiki, UPV/EHUn SGiker zerbitzuetara atxikitako baliabideak erabiliz egin diren doktorego tesien segimendua areagotu behar izan dugu.

Jarduera hauen bidez 2014an egindako 106 doktore tesi identifikatu dira (Euskal Herriko Unibertsitatearen 105 tesi dira eta beste bata Vigoko Unibertsitatearena). 2013n 70 erregistratu ziren eta 2012ean, berriz, 65. Horrela, SGiker-en hainbat Zerbitzu eta Unitateetan aurrera eraman diren tesien portzentzaia, UPV/EHU-n irakurri diren tesi guztiekin alderatuta, 2010ean %12-a izatetik, 2014an ia %22a izatera pasatu da.

Esan beharra dago gainera, urte honetan, SGiker garatutako tesien %56ak, nazioartekotasuna daukatela, UPV/EHU-n, 2013an irakurri diren tesi totalen %37aren aurrean.

Laburbilduz, esan behar da 2014an SGiker unitateen laguntzarekin egindako tesi gehienak Zientzia Esperimentalen arlokoak izan direla (% 65) eta, gero, Osasunaren Zientzien arlokoak (% 25), Ingenieritza eta Arkitekturaren arlokoak (%9) eta . Hala ere, aipatu behar dugu halako lanak jakintza arlo guztietan egin direla (8. irudia).



8. irudia. SGiker zerbitzuen laguntzarekin egindako doktorego tesien banaketa jakintza arloka.

SGIkerren bermearekinrekin, 2014.urtean irakurritako 106 tesietatik, 81, emakumezkoek defendatutakoak eta 25 gizonezkoek defendatutakoak izan dira. Jardueraren zientifikoaren araberako distribuzioa 8.irudian jasota agertzen da.

4.3.3. IKERKETA PROIEKTUAK

2014an, SGIker zerbitzuak erabiltzen dituzten 280 ikertzaile nagusi 407 ikerketa proiekturen buru izan dira. Horietatik 374 eskualde eta nazio mailako eta nazioarteko finantzazio publikoko proiektuak dira (5. taula). Gainerako 33ak finantzazio publikoko proiektua dira eta, horietatik, 27 enpresekiko kontratuei dagozkie, 2 hitzarmen eta 4 erakunde pribatuen deialdiei (6. taula).

IKERKETA PROIEKTUAK FINANTZIAZIO PUBLIKOA	2010	2011	2012	2013	2014
NAZIOARTEKOAK	11	10	7	11	11
NAZIONALAK	96	116	107	120	97
ESKUALDEKOAK	230	218	292	263	266
GUZTIRA	337	344	406	396	374


5. taula. SGIker zerbitzuen laguntzarekin egindako finantzazio publikoko ikerketa proiektuak.

IKERKETA PROIEKTUAK FINANTZIAZIO PRIBATUA	2010	2011	2012	2013	2014
EMPRESEKIKO KONTRATUAK	26	16	24	28	27
ERAKUNDE PRIBATUEN DEIALDIAK	3	3	2	4	4
EKINTZA BEREZIAK	0	2	2	1	0
HITZARMENAK	0	1	0	0	2
TOTAL	29	22	28	33	33

6. taula. SGIker zerbitzuen laguntzarekin egindako finantzazio pribatuko ikerketa proiektuak.

9. irudian, zenbait erakundek UPV/EHUren esku utzi dituzten eta SGIker zerbitzu eta unitateetako bakoitzaren laguntza izan duten ikerketa proiektuen kopurua ageri da.

Irudi honetan proiektu kopuru osoa 7755ekoa da, askotan zerbitzu batek baino gehiagok proiektu berean lagundu dutelako. Hala, beraz, garbi geratzen da unitateek badutela harremana elkarrekin eta diziplina anitzeko analisitan eskaintzen dutela laguntza.



9. irudia. Zerbitzuen laguntza izan duten ikerketa proiektuen kopurua.

4.3.4. SGiker ZERBITZUAK BILTZAR, FORO ETA MINTEGIETAN

2014an, SGiker zerbitzuetara atxikitako aholkulari zientifikoek eta teknikariek biltzar, jardunaldi, workshop eta mintegi oso garrantzitsuetan parte hartu dute.

Jarraian, ordena kronologikoan jarrita:

- ✓ *Servicio general de investigación de Rayos X. XXIV Simposio del GE3C: Cristalografía y Sostenibilidad; Bilbo, 2014ko ekainaren 23tik 26a arte.*
- ✓ *Versatilidad de la espectroscopia fotoelectrónica de rayos X (XPS) para la caracterización de materiales. XXIV Simposio del GE3C: Cristalografía y Sostenibilidad; Bilbo, 2014ko ekainaren 23tik 26a arte.*
- ✓ *Potencialidad de las técnicas combinadas de espectroscopia Raman en el análisis de materiales. XXIV Simposio del GE3C; Bilbo, 2014ko ekainaren 23tik 26a arte.*
- ✓ *Presencia del Researcher ID en la Investigación española. XI Foro Internacional sobre Evaluación de la calidad de la Investigación y la Educación Superior (FECIES); Bilbo, 2014ko uztailaren 8tik 10era.*
- ✓ *El apoyo de SGiker en la formación transversal para la investigación científica. XI Foro Internacional sobre Evaluación de la calidad de la Investigación y la Educación Superior (FECIES); Bilbo, 2014ko uztailaren 8tik 10era.*
- ✓ *Subcellular fractionation enhances chromosome 16 proteome coverage. HUPO 13th World Congress. The proteome quest to understand biology and disease; Madril, 2014ko urriaren 5etik 8a arte.*
- ✦ *MyMRM: A software tool for designing ad-hoc MRM experiments. HUPO 13th World Congress. The proteome quest to understand biology and disease; Madril, 2014ko urriaren 5etik 8a arte.*

4.4.- SGikerren PRESTAKUNTZA ESKAINTZA

2014 urtean, SGiker zerbitzuek Goi-mailako Graduko Prestakuntza Moduluetakoko 9 ikasle hartu dituzte lantokietan beren prestakuntza osatzeko praktikak egin ditzaten (3 hilabeteko egonaldia). Honako zentro hauekin sinatu dira, hain zuzen, hitzarmenak: Tartanga Lanbide Heziketako Institutua eta Elorrieta Erreka Mari Goi-mailako Lanbide Heziketako Institutua.

Honako lau hauek izan ziren harrera unitateak:

- Genomika Zerbitzua: Sekuentziazio eta Genotipo Azterketen Unitatea: 3 ikasle.
- Kalkulu Zientifikoa Zerbitzu Orokorra: 2 ikasle.
- Bizkaiko Analisisirako Zerbitzu Zentrala: 2 ikasle.
- Biomedikuntzako Mikroskopia Analitikoa eta Bereizmen Handikoa Zerbitzu Orokorra: 2 ikasle.


SGiker-en prestakuntza eskeintzarekin lotuta, lehenik eta behin, azpimarratu beharra dago, UNE-EN ISO 9001:2008 arauan ziurtatu dela, SGiker-en arlo guztietan garatzen diren prestakuntza jarraiko ikastaroen diseinu, eskeintza, inpartizio eta ebaluaketa prozesu osoarentzako.

Emandako ikastaroek dagokienez, 2014an 18 prestakuntza ekintza gauzatu dira. Horietatik 16 urte hasieran finkatutako eskaintzakoak dira eta gainerako 2ak, berriz, kanpoko erakunde bati eta Unibertsitateko bertako ikerketa talde bati neurria diseinatu eta emandakoak (7. taula).

IKASTAROEN ESKAINTZA ETA ESKAERA	2010	2011	2012	2013	2014
Guztira emandako ikastaroak	33	34	27	22	18
Eskaintzako ikastaroak	30	29	21	18	16
Ikastaro bereziak	3	5	6	4	2
Eskaini eta eman ez diren ikastaroak	3 (18,8%)	5 (16,1%)	8 (27,6%)	5 (18,5%)	8 (30,7%)

7. taula. SGiker zerbitzuen prestakuntza eskaintzaren adierazle nagusiak.

2014an emandako prestakuntzaren iraupen osoa 345 ordukoa izan da (2013an, ordea, 480 ordukoa izan zen); horietatik 320 ordu prestakuntza eskaintzari dagozkio eta gainerako 25ak neurria egindako ikastaroek (10. irudia). Batez besteko ordu kopurua, ikastaroko, 19,17ekoa izan da (2013an, ordea, 21,82koa izan zen).



10. irudia. Emandako prestakuntza orduen bilakaera 2010-2014 aldian.

2014an, SGIker zerbitzuek 154 pertsona prestatu dituzte (irakasleak, ikertzaile seniorrak, ikertzaile gazteak, doktorego aurreko ikasleak eta ikertzaileak eta enpresetako langileak). Horiek guztiak honela banatu dira: 146 pertsonari prestakuntza eskaintzako ikastaroak eman zaizkie eta 8i neurrira egindako ikastaroak. Datuok 8. taulan daude.

PARTE-HARTZAILEAK	2010	2011	2012	2013	2014
Parte-hartzaile kopurua	376	429	325	213	154
Eskaintzako ikastaroetakoak	351	410	301	192	146
Ikastaro berezietakoak	25	19	24	21	8

8. taula. SGIker zerbitzuen prestakuntza eskaintzako parte-hartzaile kopurua.


II. eranskinean, SGIker unitateek 2014an emandako ikastaroen laburpen bat ageri da. Prestakuntza eskaintza 2015ko ikastaroen katalogoan eta ondorengo estekan aurki daitekeena:

http://www.ikerkuntza.ehu.es/p273-sgikerct/eu/contenidos/informacion/cursos/eu_formac/acceso.html

Masterrak eta doktorego programak

Difusio ekintzen artean, 2014.urtean, SGIker-en 15 unitatek laguntza teknikoa bermatu dute, prestakuntza eta ikerkuntza mailako 29 ekintzekin, UPV/EHU-ko 13 master-etan eta unibertsitateen arteko beste 2 masteretan, bata, Kantabriako Unibertsitatearekin eta bestea, Valladolideko Unibertsitatearekin eta Nafarrako Unibertsitate Publikoarekin (11.irudia):

Título	Área
Material Berriak Unibertsitate Arteko Masterra	Fisika, Kimica eta Materialak
Kimika Sintetiko eta Industrialak Unibertsitate Arteko Masterra	Fisika, Kimica eta Materialak
Kimika eta Polimeroak Unibertsitate Masterra	Fisika, Kimica eta Materialak
Kuaternarioa: Ingurugiro Aldaketak eta Giza Oinatza Unibertsitate Masterra	Ingurugiroa
Ingurumenaren Kutsadura eta Toxikologia Unibertsitate Masterra	Ingurugiroa
Ingeniaritza Nautiko eta Itsas Garraioa Unibertsitate Masterra	Ingeniaritza eta Teknologia
Material Aurreratuen Ingeniaritza Unibertsitate Masterra	Ingeniaritza eta Teknologia
Material Berriztagarrien Ingeniaritza Unibertsitate Masterra	Ingeniaritza eta Teknologia
Enologia Berriztailea Unibertsitate Masterra	Elikagaien Zientzia eta Teknologia
Elikadura Kalitatea eta Segurtasuna Unibertsitate Masterra	Elikagaien Zientzia eta Teknologia
Biologia Molekularra eta Biomedikuntza Unibertsitate Masterra	Biomedikuntza
Ingeniaritza Biomedikoa Unibertsitate Masterra	Biomedikuntza
Oinarrizko eta Klinikoko Onkologia Unibertsitate Masterra (Berezko titulazioa)	Biomedikuntza
Neurozientziak Unibertsitate Masterra	Biomedikuntza
Analisi Forentsea Unibertsitate Masterra	Bizi-Kalitatea eta Osasuna



11. irudia. Masterren banaketa jakintza arloka.

4.5.- GIZA BALIABIDEAK ETA BALIABIDE TEKNOLOGIKOAK


4.5.1. LANGILEAK

Krisi ekonomikoa dagoen garai honetan, helburu nagusia, kualifikazio altuko plantila mantentzea izan da. Zentzu honetan, 2014.urtean, aurreko urtean izandako plantila eta kontratu berdinak mantentzea lortu da.

12. irudian eta 9. taulan SGIker zerbitzuetan kontratatuta eta horietara atxikita dauden langileen egungo banaketa ikus daiteke, beren eginkizunaren eta azken 5 urteotan izan duten bilakaeraren arabera.


SGIkerretako PERTSONALA	2010	2011	2012	2013	2014
SGIkerretako teknikariak	36	37	41	40	40
Animaliategiko erdi mailako teknikariak	3	3	3	3	3
Animaliategiko ofizialak	4	4	3	3	3
Animaliategiko arduraduna	1	1	1	1	1
LHko pertsonala	4	4	5	4	4
Administrari laguntzaileak	2	2	2	2	2
SGIkerretako zerbitzuburua	1	1	1	1	1
SGIkerretako pertsonala guztira	51	52	56	54	54

9. taula. Giza baliabideen bilakaera 2010-2014 aldian.



12. irudia. SGIker zerbitzuetako langileen banaketa 2014an.

Giza baliabideak egoki kudeatzeko, beste adierazle batzuk ere hartzen dira kontuan, esate baterako, zenbat gizonezko eta emakumezko dauden, zenbat doktore eta ez doktore, zenbatek duten LPZko lanpostu bat, zenbat diren AZPko langileak eta zenbat kontratatudun ikertzaileak (13. irudia).




13. irudia. Giza baliabideen kudeaketa adierazleak.

4.5.2. LANGILEEN PRESTAKUNTZA

Prestakuntzaren kudeake efizientziarekin eta giza baliabideetan egindako inbertsioarekin izandako konpromezuak, SGIKerren lan egiten duten perstonen prestakuntza jarduerak eta euren iraupena murriztera eraman gaitu 2014.urtean. Hala eta guztiz ere, azterketa zorrotz bati esker, prestatutako langileen %, aurreko urteekiko handitua ahal izan da.

Politika honen ondorioz, azpimarratzekoa da mantendu egiten dela %83ko prestatutako langileak, SGIKerreko langileek beraiek, edo Zuzendaritzak sustatutako 46 jardueratan. 2014.urtean, prestakuntzari eskeinitako ordu kopurua eta bere portzentaia lanordu totalarekiko, azaldu den moduan, 2010. urteko mailara jeitsi da, 14. irudian ikus daitekeen moduan.



14. irudia. SGiker zerbitzuetako langileek jasotako prestakuntza orduak 2010-2014 aldian.

4.5.3. EKIPAMENDU ZIENTIFIKO ETA TEKNOLOGIKOA

UPV/EHUK SGiker Ikerkuntzarako Zerbitzu Orokorren bidez kudeatzen dituen prestazio bikainen ekipamendu zientifikoa deialdi nazionalen lehia bidez parte hartuz lortu da. Azpiegitura honen finantziario iturriak MINEKOk EGEF laguntzake eta MINEKOk Ekintza Osagarriak, EHUKo Azpiegituaren Deialdia eta Eusko Jaurlaritzako Zientzia Politikarako Zuzendaritza dira.

Sartutako ekipamendu berrien barruan, honako hauek nabarmendu behar dira:

- ✦ Kalkulo Zientifiko Zerbitzuan Arina Kluster-aren handipena (Ikerketari Aplikatutako Informatika) Xenon-ezko 600 core berrien bitartez.
- ✦ Sekuentziazio eta Genotipoen analisirako, Sekuentziazio plataforma berri baten erosketa (NGS). Sekuentziadore hau, sonikadore batekin osatzen da.
- ✦ Bizkaiako Anlisi Zerbitzu Zentralean, MALDI moduko imajinen analisirako, sprayadore automatiko bat gehitu da.
- ✦ Mikroskopia Elektronikoa eta Materialeen Mikroanalisen Zerbitzuan, (Plasma Cleaner) plasma garbitzaile baten erosketa, TITAN ekipoa osatzeko.
- ✦ Geokronologia eta Geokimika Isotopikoa Zerbitzuan dagoen ekipamendua osatzeko, Perkin markako masa espektrofotometro (ICP-MS) berri baten erosketa.
- ✦ Fitotroi eta Negutegi Zerbitzuan, klimatizazioa kudeatzeko, kontrolatzeko eta erregulatzeko sistema baten instalazioa. Honi esker, modu azkar baten eta in situ, landareen hazkuntzan eragietn duten parametro ezberdinak ezagutu ahal izango dira.

4.6.- SGIKER ZERBITZUAK HEDABIDEETAN

Jarraian, hedabideetan SGiker zerbitzuei buruz bildutako albisten titularretako batzuk ditugu.

Prensa idatzia eta digitala

- ✦ *El Parque Científico de la UPV/EHU engrasa la máquina de la investigación aplicada.* QUENervión, 2014ko urtarrilaren 30a.
- ✦ *Helena Días y Aitor Larrañaga, ganadores del V Concurso de Fotografía Científica.* Gabinete de prensa de la UPV/EHU.es, 2014ko martxoaren 21a.
- ✦ *Área contagiosa, máxima seguridad. El Correo entra en el laboratorio de contención de riesgo biológico 3 de la UPV/EHU, donde se puede trabajar con los temibles patógenos de la rabia o la peste.* El Correo, 2014ko azaroaren 2a.

Telebista

- ✦ *El milagro de la homeopatía.* La Sexta TV, 2014ko abenduaren 3a.


Irratia

- ✦ *Radiografía de la investigación científica.* El Mirador, Euskadi Irratia, 2014ko urriaren 14a.

4.7.- ERABILTZAILEEN GOGOBEKETASUNA


4.7.1. GOGOBEKETASUN INKESTAREN EMAITZAK

2010-2014 urteen artean prestatutako zerbitzuen balorazioaren portaera, 15. irudian ikus daiteke, lortutako puntuaziorik altuena 2014.urtekoa izanik. Emaitza hau kalkulatzeko, betetako gogobetetasun inkesta bakoitzaren batza bestekoa hartu da kontutan. Kalifikazio eskala, 0 eta 5 puntuen artekoa da.




15. irudia. Gogobetetasun inkestan lortutako batez besteko balorazioaren urte arteko joera.

Betetako 419 gogobetetasun inkestetaik (16.irudia), 67, 2014. urteko urtarrila eta abenduaren artean jaso dira, eta 352 2015.urteko urtarrilean zehar jaso dira, urtero egiten den egotziarekin.




16. irudia. Jasotako inkesta kopuruaren arteko alderaketa.

Gogobetetze inkestak ere agerian jartzen du erabiltzailearen jatorriaren arabera izandako bilakaera. 2014an hobetu egin da barneko erabiltzaileen gogobetetzea. Kanpoko erabiltzaileen gogobetetzeak jaizten du, UPV/EHUko ikertzaileen gogobetetze mailaren gainetik. Historikoki, kanpoko erabiltzaileengan sortutako irudia UPV/EHUko erabiltzaileena baino hobea izan da (17. irudia).




17. irudia. Kanpoko erabiltzailearen eta barnekoaren gogobetetasunak izandako bilakaera.

Jarraian, ohiko erabiltzaileek egindako balorazioaren bilakaera dugu, zerbitzuak lehen aldiz 2014an erabili dituztenek azterlan honetan emandakoarekin alderatuta (18. irudia).



18. irudia. Erabiltzaile berriengan eta ohiko erabiltzaileengan sortutako irudiaren arteko bilakaera konparatiboa.


19. irudian, erabiltzaileen gogobetetzea aurkezten da, Zerbitzuen erabilera frekuentziaren arabera. etengabekko hobekuntza ikusi daiteke bai noizbehinkako erabiltzaileetan, bai ohikoagoetan. Horrek eragin zuzena du gogobetetze orokorra handitzean (15. irudia), bai segmentu horretako inkesta kopuruarengatik bai bertan lortutako emaitzengatik.



19. irudia. Erabiltzaileen gogobetetasun maila, erabiltzeko maiztasunaren arabera.

Azkenik, inkestaren elementu bakoitzean lortutako emaitza agertzen da. 2010-2014 aldiko datu hauek alderatuta agertzen dira (20. irudia).

Ikusi daiteke, galdetutako esparru gehiantan, 2013. urtean baino emaitza hobekak lortu direla (zerbitzuaren arintasuna baloratzean izan ezik), eta SGIkeren lortutako emaitzik hobekak bezala kokatzen dira. Honen barruan sartzen da, 5 puntu posibleetarik 4.5eko puntuazioa lortu izana balorazio globalean eta lehenengo biderrez, tarifak 4 puntutaik gora egotea.



20. irudia. Inkestako eremu bakoitzean lortutako batez besteko balorazioaren bilakaera.

4.7.2. PRESTAKUNTZAREKIKO GOGOBETETASUNAREN SEGIMENDUA

2014an emandako 18 prestakuntza ikastaroak ebaluatu dituzte parte-hartzaileek, hain zuzen ere horretarako diseinatutako gogobetetze inkestaren bidez. Parte-hartzaileei kontsultatutako gaiak eta jasotako batez besteko balorazioak 10. taulan agertzen dira. Guztira 118 erantzun jaso dira (parte-hartzaile guztien % 77).

Emaitzak 5etik baloratu dira, 8. atala izan ezik (“Iraupena”), honela neurtu baita: 1, oso ikastaro laburra; 2, iraupen egokiko ikastaroa; eta 3, oso ikastaro luzea.

GALDETUTAKO ELEMENTUAK (GEHIENEZ 5 PUNTU LOR DAITEZKE)		2010	2011	2012	2013	2014
1. IRAKASLEAK	Irakasleen gaikuntza eta erabilitako metodologia.	4,7	4,7	4,7	4,7	4,7
2. ERABILGARRITASUNA	Ikasitakoa berehala edo epe motzera lanpostuan aplikatzeko aukerak, eraginkortasuna hobetzen laguntzeko.	4,5	4,3	4,2	4,3	4,2
3. DOKUMENTAZIOA	Edukien zehaztasuna, ulerterraztasuna, aurkezpena.	4,3	4,3	4,3	4,3	4,2
4. TRESNERIA ZIENTIFIKOA	Tresneriaren egoera, erabilera baldintzak, laborategiaren garbiketa.	4,6	4,3	4,4	4,5	4,5
5. BITARTEKO TEKNIKOAK	Ikus-entzunezko bitartekoak, instalazioen egoera, gelaren erosotasuna...	4,3	4,1	4,2	4,1	4,2
6. PROGRAMA BETETZEA	Zenbateraino bete den programaren helburua.	4,4	4,4	4,4	4,5	4,4
7. ANTOLAMENDUA	Ikasleentzako arreta, hedapena, ordutegiak, administrazio kudeaketa, etab.	4,5	4,4	4,5	4,6	4,6
8. IRAUPENA	Helburua lortzeko esleitutako denboraren egokitasuna.	1,8	1,8	1,8	1,9	1,8
9. BALORAZIO OROKORRA	Ikastaroaren/jardunaldiaren balorazio orokorra.	4,4	4,4	4,4	4,5	4,5

10. taula. Prestakuntza ekintzako parte-hartzaileek egindako batez besteko balorazioa.

Gogobetetze inkestaren erreferentzia edo alarma maila 5etik 4 puntu lortzean datza. Zentzu horretan, inkestak erabilzaileen gogobetetze oso ona erakusten du.

Inkestaren emaitzari lotuta, 0.1 puntutan hobetu da baiabide teknikoaren balorazioa eta arreta. Hala ere, beste lau epigraferen balorazioa murriztu egin da, hala nola, utilitatea, dokumentazioa eta programaren betetzea eta iraupena. Balorazioaren murrizpena ez da kezagarria 0.1 puntutakoa izan delako eta guztiak mantendu direlako 4 puntutatik gora aurretik adierazi den moduan.

Nahiz eta murrizketa hau minimoa izan den, beharrezkoa da alderdi hauek zaintzea eta hobekuntzarako helburuetan dagokien jarraipena egiteko baliabideak ezarriko dira.

Prestakuntza ekintza bakoitzaren ondoren egindako gogobetetasun inkestako zenbait ataletan parte-hartzaileak erantzun irekiak eman ditzake. Memoria honen III. eranskinean parte-hartzaileek egindako ekarpenen analisia eta laburpena dago.

Eskainitako prestakuntza ikastaro baten inguruko inskripzioa egitean, parte-hartzaileari ikastaroaren berri nola izan duen galdetzen zaio (11. taula).

Komunikaziorako bitartekoa	Bitarteko guztien %
SGiker zerbitzuen webgunea	35,29
UPV/EHUko iragarki taulak: EHUtaulak	20,00
Lagun edo ezagunen bat	17,65
Zerbitzuko langileekiko elkarrizketak eta zuzeneko harremana	11,76
Mailing elektronikoa	9,41
Beste bitarteko batzuk	5,88

11. taula. Erabilitako komunikazio bideen eraginkortasunaren analisia.


Lortutako informazioak garbi erakusten du komunikazio kanalik eraginkorrenak SGiker zerbitzuaren webgunea, UPV/EHUko iragarki taula (EHUtaulak) eta lagun edo ezagunen bat izan direla.

4.8. EMAITZA EKONOMIKOAK

Kanpoko fakturazio bidezko diru-sarrerak % 21,06 handitu dira azken urtean, eta 520 mila eurokoa izan dira. Aldiz, barneko fakturazioa % 12,81 murriztu dira, eta 660 mila eurokoak izan da. Fakturazio orokorra % 0,52 murriztu da aurreko urtekoarekin alderatuta (21. irudia).

Aurreko emaitzak kontrastea egiten du zerbitzuak erabiltzen dituzten UPV/EHUko ikertzaileen kopuruarekin. Barneko erabiltzaile kopuruak handitu du.

2004 eta 2014 artean fakturaturakoa guztira 9,3milioi eurotik gorakoa da; kopuru hori berriro inbertitu da material suntsigarriak eta ekipamendu txikiak erosteko, ekipamenduen konponketa eta mantentze lanak egiteko eta langile teknikoak kontratatzeko.




21. irudia. 2010-2014 aldiko SGlker zerbitzuen fakturazioaren datuak.

12. taulan SGlker zerbitzuekin merkataritza harreman handiena izan duten eta jakintza gehien transferitzeko aukera eman duten erakunde publiko eta pribatuen zerrenda dago. Zerrenda hau kanpoko fakturazioaren inguruko datuen arabera egin da; erakunde guztiek 10.000 euro baino gehiago fakturatu dituzte.

ERAKUNDE PUBLIKO ETA PRIVATUEN ZERRENDA	
1.	Centro de Investigación Cooperativa CIC NANOGUNE
2.	Fundación BIOEF (Fundación Vasca de Innovación e Investigación Sanitaria)
3.	Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco
4.	Fundación Ramón Domínguez I+D+i Biosanitaria
5.	Asociación para la Investigación de la Industria Textil (AITEX)
6.	Berc Polímeros (Polymat)
7.	Tecnalia Research & Innovation
8.	AZTI Tecnalia
9.	Mapsa Company
10.	Asociación para la Investigación de la Industria Cárnica de La Rioja (ASICAR)
11.	Baigene S.L.
12.	Universidad de Granada
13.	UTE Dam Crispijana/Ohl Med Ambi
14.	Progenika Biopharma, S.A.

12. taula. 2014an gehien fakturatu duten erakunde publiko eta pribatuak (gehienekotik gutxienekeora).

SGiker unitateek arloka duten banaketari erreparatuz, 22. irudian SGikerrek egindako zerbitzuen arabera fakturatu dutena (nola barruan hala kanpoan) ageri da, ehunekotan.



22. irudia. SGiker zerbitzuek 2014an fakturatutakoa, arloka.

5.- 2015rako HOBEKUNTZA JARDUERAK

Plan Estrategikoa

- ✚ 2015-2018 SGiker-en Plan Estrategikoaren diseinua, 2015-2018 Ikwerkuntza Plan berriarekin eta PCTI EUSKADI 2020-rekin (Horizonte 2020) bateratua.

Kalitatea

- ✚ 2015-2018ko Kontratu-Programan definitutako, 9001 eta 17025 araudien arabera zertifikazio plana bete. Sekuentziazio eta Genotipatu Unitatean, akreditatu daitekeen sistema bat ezartzen jarraitu eta zertifikazio berriak lortu SGikerreko bi unitatetan.
- ✚ UNE-CENT/TS 16555-1 EX araudiaren arabera kudeaketaren inplantazioarekin hasi.
- ✚ Kalitatearen kudeaketaren esparruan, prestakuntza jarduerak aurrera eraman.

Enpresa Baliabideen Planifikazio sistema baten finkapena (ERP).

- ✚ Eskaera orokor bat egiteko harraminta informatikoaren diseinuarekin bukatu, kudeaketa lanak hobetu ahal izateko.
- ✚ Kudeaketa eta estrategikoak diren indikadoreen errepositorio berri bat sortu. Datuak berreskuratzeko, alimentazio sistema, eta aldaketak eta datuak berreskuratzeko baimenak izateko, egituraren diseinua.

Azpiegitura

- ✚ Ekipamendu eta teknologia ahultasunak indartu.
- ✚ Alarma sistema bat garatu, kontratu administratiboaren kudeaketa egiteko eta iraungitze datak, bueltatzeko bermeak, eta azpiegitura berrien eraketan kudeaketarekin erlazioa duten jardueren kontrola izateko.

Zientziometria

- ✚ Indikatzaileen presentzia indartu, Ikerkuntza, Garapen eta Berrikuntza Batzordean erabakiak hartzerako orduan lagungarri izateko.
- ✚ Ikerkuntza bermatzen duten prestakuntza ikastaro eta tailer berrien diseinua eta inpartizioa. Ezagupen arloen arabera orientazioa, prestakuntza ikastaroen inpartizioa, gazte ikertzaileei laguntzeko orientazio tailer modalitatean.
- ✚ PDI-a kontzientziazten jarraitu, publikazioen esker onetan, SGikerren laguntza zientifiko-teknikoa aipatu dezatenaren behar izanaz.
- ✚ Ikerkuntzaren idarpenari zuzendutako jardunaldiak prestatu, ikerkuntza Jarduera txikiagoa duten zentruetan.
- ✚ Eduki bibliometrikoak dituzten tailerren inpartizioaren bidezko bermea irakaskuntzari.

SGikerren ikuspena haunditu

- ✚ Enprekin ebentuetan partehartu.
- ✚ Ate irekien jardunaldiak, komunitate ikertzaileari ekipamendu eta azpiegitura berrien aurkezpena egiteko.
- ✚ Lanerako Prestakuntza Zentruen Programaren barruan, ikasleen tutoreen visita periodikoak, egindako jarduerak ezagutzeko.

Prestakuntza jarduerak

- ✚ SGikerren prestakuntza eskeintzan inskripzioen kopurua handitu.
- ✚ Ematen ez diren kurtsoen erlazioa %20an jeitsi.
- ✚ Acogida de alumnos y alumnas para la realización de trabajos fin de grado.
- ✚ Gradu amaierako lanak burutzeko ikasleen jasotzea.

I. ERANSKINA.- BALIABIDE ZIENTIFIKO ETA TEKNOLOGIKOAK

SGIker unitateak bi arlotan daude banatuta: administrazio kudeaketaren arloa eta zientzia arloa. Ondoren, SGIkerren egitura osatzen duten Unitateak ikusiko ditugu.

Kudeaketa arloa

Kudeaketa arloa SGIker unitateen administrazio jardueraz arduratzen da. Honako unitate hauek biltzen ditu:

- Zuzendaritza
- Koordinazio Unitatea.
- Ekonomia Unitatea.
- Kalitate eta Berrikuntza Unitatea.
- Zientziometria Unitatea.
- Informazio Gordailuen Kontrol eta Kudeaketa Unitatea.
- Tresna Baliabide Zientifikoak.

ZUZENDARITZA

SGIker Ikerkuntzarako Zerbitzu Orokorren arduradun gisa, bere eginkizun nagusia helburuak eta estrategia jarritzea, zerbitzua zuzentzea, eta gobernu organoekin eta UPV/EHUko arduradun gorenekin harremanetan egotea da, erabaki estrategikoak hartzeko. Zuzendaritza eta segimendu lanak Ikerkuntzarako Zerbitzu Orokorren zuzendariari dagozkio.

Zuzendaria:

Maribel Arriortua irakasle doktorea

KOORDINAZIO UNITATEA

Bere eginkizun nagusia SGIker zerbitzuetako langileak eta jarduerak koordinatzea da, finkatutako estrategia bati jarraituz. Koordinazio lanak zerbitzuburuari eta Koordinazio eta Plangintza teknikariari dagozkie.

Zerbitzuburua:

José Manuel Nicolau lizentziaduna

josemanuel.nicolau@ehu.es

Koordinazio eta Plangintza teknikaria:

Iñaki Echeverría lizentziaduna

sgiker@ehu.es

EKONOMIA UNITATEA

Bere egiteko nagusia, hain zuzen, SGikerretako aurrekontua gauzatzea da; betiere, Zuzendaritzaren argibideei jarraituta. Horretarako, kontabilitate ekonomikoaz arduratu, hornitzaileei egin beharreko ordainketak kudeatu eta gauzatu eta zerbitzuen fakturazioa egin beharko du.

Administrariak:

Ana Aketxe lizentziaduna

anaisabel.aketxe@ehu.es

Inmaculada Fernández andrea

minmaculada.fernandez@ehu.es

KALITATE ETA BERRIKUNTZA UNITATEA

Hobekuntza konpromisoaren emaitza moduan, unitate honek SGiker unitateek kalitatearen ISO 9001, ISO 17025 eta EFQM arauak eskura dezaten beharrezkoak diren prozesuak eta prozedurak ezarri ditu. Gehigarri moduan, unitate honetan zentralizatzen da SGikerretan eskaintzen den etengabeko prestakuntzaren kudeaketa guztia.

Teknikariak: Iñaki Gil doktorea

calidad-sgiker@ehu.es

Jon Etxeandia lizentziaduna

jon.etxeandia@ehu.es

ZIENTZIOMETRIA UNITATEA

Datu ekonomikoak ez dira nahikoak unitate baten jarduera eta errendimendua ebaluatu ahal izateko. Horretaz gainera, ikerketa jardueratik eratorritako ukiezinei (zientzia ekoizpena, ikerketa proiektuak, tesiak, patenteak...) segimendu aktiboa egin behar zaie. Ikuspegi horretatik, nazioartean ospetsuak diren gordailu zientifiko eta teknikoetan (Web of Science, Scopus...) eskuragarri dauden datuak aztertzen dira bertan, eta adierazle berriak diseinatzen dira, zientziometriaren metodologia berrienekin bat eginda.

Teknikariak: Fátima Pastor doktorea

fatimaana.pastor@ehu.es

Maria José Rodríguez doktorea

mariajose.rodriguez@ehu.es

INFORMAZIO GORDAILUEN KONTROL ETA KUDEAKETA UNITATEA

